



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea**  
**2010-03-30**

VIII. URTEA 1965. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Herri kiroletako, batez ere aizkora munduko, hainbat ordezkari bildu zen Leitzan Joxemari Mendizabalen hileta elizkizunean; elizara sartu aurretik Aureskua dantzatu zioten. I. GARCIA

## AIZKORAK GORA JARRIZ AGURTU DUTE

**ADUNA-LEITZA** Joxemari Mendizabal aizkolariari azken agurra emateko jendetza bildu zen Leitzako elizan 6-7

### Apirilaren 6an hasiko da XI. HITZA Argazki Lehiaketa

**LEHIAKETA** Aste Santuetan ateratako argazkiak apirilaren 28ra arte bidali ahal izango dira 4



X. edizioan parte hartu zuen argazkietako bat. HITZA

### Euskal Herria eta Sahara bat eginik bertsoen oihartzunari esker

**TOLOSA** 800 bat pertsona bildu ziren herenegun Tolosaldea Sahararekin elkarteak Beotibar pilotalekuan antolatutako bertso saioan 2



Ahmed Hadmed sahararrak bere testigantza eskaini zien bertso saiora joandakoei. I. TERRADILLOS

# Elkartasunezko bertsoak

**Tolosa** » 800 lagun inguru bildu ziren herenegun Beotibarren izandako bertso saioan; bildutako dirua Saharan ikastetxe bat eraikitzeko izango da.

**INIGO TERRADILLOS**

Hunkigarria, eta aldi berean, umorez beteriko bertso saioa izan zen herenegun Beotibar pilotalekuan. Tolosaldea Sahararekin elkarteak antolatuta, Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jon Maia, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi aritu ziren bertsoan, eta hauek entzutera ehunka lagun hurbildu ziren.

Bi herrialdeak, Sahara eta Euskal Herria, baturik daudela esan daiteke izan ditzaketen parekidetasunengatik, eta anaitasunaren adierazle saharar eta euskal irrintziak botaz eman zioten hasiera emanaldiari. Doinu horiek txalapartarekin ederki uztartu ondoren, sahararren egoeraz hitz egin zuen giza eskubideak defendatzeagatik Marokok espetxeratu izan den Ahmed Hadmed sahararrak. Askori oilo-ipurdia jarriko zion bere testigantza, izan ere, behin eta berriro torturatua izan zen eta horrelako ekintzek ez dutela etenik izan azaldu zuen.

Giro horrekin hasi ziren zortzi bertsolariak lanean, baina askotariko sentimenduak nahasteko astia izan zen; elkartasuna, bakea, askatasuna, errepresioa eta heriotza bezalakoak hizpide izan zituzten, eta barre egiteko bertsoek ere bere lekua izan zuten. Honetan, Amaia Agirre billabonatarren lana nabarmendu beharra dago, bikain aritu baitzen gai-jartzaile bezala, originaltasuna eta egoera xeberak sortu nahian.

Emanaldiaren bukaeran, jendea pozik, saio atseginaz gozatu zutelako; gustura, sahararrei laguntzeko emandako hondar-alearengatik; eta hunkiturik, entzundako bertsoek eta lekukotzek gogoetarako bide eman baitzuten.



Jon Maia izan zen nabarmendu zen bertsolarietako bat, batez ere umorezko zertzelada jarritz. I.T.



Ahmed Hadmed sahararra bere bizipenak kontatzen. Atzean, Tolosan bizi diren sahararrak, torturatuen karteekin. I.T.

## Balantze baikorra

Tolosaldea Sahararekin elkarteak ere «oso gustura» azaldu da bertso saioak izandako harrerarekin, eta oso balantze baikorra egin du. «Oso pozik gaude arrakastatsua izan zelako emanaldia, eta jendeak Saharako arazo politikoa modu oso politean ezagutzeko aukera izan duelako», azaldu du Gregorio Eizagirre elkarteko kideak. Horre-

gatik, bertaratu zirenei eta saioa egin ahal izateko lagundu duten guztiari eskerrak eman nahi dizkie elkarteak.

## Hezkuntza proiektua helburu

800 lagun inguru bildu ziren herenegun Beotibar pilotalekuan. Txarteletatik bildutako dirua Saharako lurralde askean kokaturiko Mijek herrian Lehen Hezkuntza-

ko ikastetxe bat eraikitzeko baliatuko dute. Ostiralean Gure Kaiola elkarteak antolatutako pilota jaialdian ateratako dirua ere proiektu horretarako erabiliko dute, eta baita Gabonetan Laskorain ikastolajarritako Merkatu Txikian bildutakoaren zati bat. Zonalde horretan ez dago ikastetxerik, eta bertako gazteek kanpalekuetara joan behar izaten dute ikastera.

## Laburrak

### Su-egurra jasotzeko bilera egingo dute gaur

**ADUNA** » Su-egurra jasotzeko aukera jarri nahi du aurten ere Adunako Udalak. Horretarako interesa duten herritarrentzat bilera egingo dute, gaur 21:00etan, udaletxean. Bertan, zozketa egingo dute, eta bakoitzari dagokion su-egur loteak banatuko zaizkio. Udaletik azaldu dute oso garrantzitsua dela bertaratzea egurra jaso nahi izanez gero.

### Tolosa Kup txapelketan izena emateko aukera

**TOLOSA** » Tolosa Kup txapelketa apirilaren 17an hasiko da. Parte hartu nahi dutenek apirilaren 9a baino lehen eman beharko dute izena Kultur Etxean.

### Alkoholiko Anonimoen bilera izango da gaur

**TOLOSA** » Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak, hileroko azken asteartero bezala, bilera irekia egingo du gaur. Corpus Christi parrokiako lokaletan kokaturiko egoitzan izango da, 20:00etan. Alkohola eta bere ondorioak izango dituzte mintzagai. Bilerara gonbidatzen dituzte alkoholaren ondorioak pairatzen dituztenak eta senideak.

## Elizkizun bereziak izango dira Aste Santua dela eta

**ERREDAKZIOA**

Aste Santuko egunak direla eta, elizkizun bereziak izango dira. Etzi, Ostegun Santuan, Santa Marian eta Santa Klaran eta Iurreko Ande Marian 18:00etan izango da meza, San Frantziskon eta Corpus Christin 19:00etan eta Ibarra-ko San Bartolomen 19:30ean. Ostiralean Santuan, Gurutze-bidea egingo dute Izaskunera 07:30ean, eta meza ondorengo orduetan izango dira: San Frantziskon 10:00etan, San Bartolomen 10:30ean, Santa Marian 11:00etan eta Corpus Christin 12:00etan. Jaunaren nekaldiko meza, berriz, San Frantziskon eta Iurreko Andre Marian 17:00etan izango da, Santa Marian, Santa Klaran eta Corpus Christin 18:00etan eta San Bartolomen 19:30ean.

Bestalde, larunbat gauean, hau da, Pazko Gau Santuan 19:30ean izango da meza Iurreko Andre Marian eta San Bartolomen, Santa Marian 21:30ean eta Tolosako gainerrakoetan 21:00etan. Azkenik, Pazko Igandean ohiko ordutegia izango dute elizkizunek.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek **Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak** edo ikasleak behar dituzte **lan poltsa osatzeko.**

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a **tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info** helbidera



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Kirol emaitzak

**PILOTA**  
Berria Txapelketa, finala  
(Aurrera-Saiaz/Galdakao)

**KADETEAK**  
Labaka - Elustondo 6  
Elezkano II.a - Hernandez 22

**JUBENILAK**  
Urbieta - Zinkunegi 14  
Legorburu - Galarza 22

**NAGUSIAK**  
Renobales-Galarraga 22  
Elezkano - Ajuria 17

**Zizurko Txapelketa, 4 t'erdian finalak, urtekakoan**

**14 URTEKOAK**  
Eñaut Larrea (Txapagain) 16  
Goñi (Ugarte) 5

**15 URTEKOAK**  
Anartz Olano (Aurrera) 18  
Agirre (Burlata) 4

**16 URTEKOAK**  
Artola (Intxurre) 18  
Sarasti (Oiarzun) 3

**17 URTEKOAK**  
Jaka (Zazpi-Iturri) 18  
Gallurralde (Zazpi-Iturri) 9

**18 URTEKOAK**  
Urretabizkaia (Lazkao) 18  
Bendoiro (Erasun) 13

**Irurtzungo Txapelketa**  
INFANTILAK  
Gartziarena-Galartza (Aurr.) 18  
-- 3

**FUTBOLA**  
Nafarroako Erregional Maila  
Aurrera Leitza - Cantolagua 1-0

**Erregional Ohorezko Maila**  
Tolosa CF - Berio 0-3

**SAILKAPENA**  
1. Zarautz (57 p.); 2. Pasajes (57p.);  
3. Aurrera de Ondarroa (54 p.); 4.  
Tolosa CF (45 p.)

**1. Erregionala Igoera Fasea**  
Bergara B - Amarotz KE 4-1

**SAILKAPENA**  
1. Allerru B (26p.); 2. Lengokoak  
(25p.); 3. Kostkas-Miren Bihotza  
(24p.); 8. Amarotz (8 p.)

**Intxurre KKE** - Mondragon B 3-2

**SAILKAPENA**  
1. Irun 1902 (29 p.); 2. Santo Tomas  
Lizeoa (27 p.); 3. Mondragon B  
(21p); 4. Intxurre (20 p.)

**ARETO FUTBOLA**  
Nazional A Maila  
Lauburu KE - Sestao 4-1

**Nazional B Maila**  
Astraburuko - Laskorain 4-2  
Euskalduna - Transp. Lakunza 5-2

**SAILKAPENA**  
1. Alerru Algeposa (54p).  
2. Concepto-Createch (50p).  
3. Laskorain Ikastola (49p.).  
8. Transportes Lakunza (30 p.)

**SASKIBALOIA**  
Lehen Maila, jaitsiera fasea  
Bide bide Ibizta TAKE 68  
ATE-Asesores La Salle 65

**SAILKAPENA**  
1. TAV. Fundacion Baskonia (7-5);  
2. Easo P. Arruabarrena (7-5);  
3. Bide bide Ibizta TAKE (7-5)

# Puntuaketan zazpigarren postua eskuratu du Leire Olaberriak

**Txirrindularitza** »  
Munduko Pista  
Txapelketako Omniumeko  
brontzeak eragina izan  
zuen puntuaziokoan.

**ERREDAKZIOA**

Leire Olaberria ikaztegiatar txirrindulariak, Kopenageko Munduko Pista Txapelketako puntuazio proban zazpigarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Puntuazio proban, bezperan egindako lan guztiaren eragina jasan zuen.

Larunbatean Omnium izeneko diziplinan lan handia egin ostean, brontzezko domina eskuratu da bueltatuko da etxera baina ahalegin horrek, igandeko puntuazio



Leire Olaberria pistako txirrindularia. NEREA URBIZO

proban eragina izan zuen. Hala ere, saioan zehar, maila ona erakutsi zuen. Puntuazio probako lehen artean Tara Whitten kanadiarrak lortu zuen Danimarkan.

Ikaztegiatarrek, 2012. urtean Londresen jokatuiko diren Olinpiar Jokoak ditu buruan eta orain artean egindako lan eta sakrifizioak emaitza onak eman dizkio.

# Sestaoren aurkako partidari hiru puntuak etxean geratu dira

**Ibarra** » Harrobiko jokalaria gazteen lan bikainari esker, garaipena etxean geratu zuen. 4-1 irabazi zuten bizkaitarren aurka.

**ERREDAKZIOA**

Ibarrak areto futbol taldeak, igandean Sestaoren aurka lehiatu behar izan zuen eta partida amaieran, hiru puntuak etxean geratu ziren. Jose Balerdi, Aitzol Oyarbide, Jon Garmendia, Iñigo Arrospide eta Loitzun Sanz izan ziren hasierako jokalariek.

Ibarra F. S. taldeak ez zuen zailtasunik izan inongo mementotan

Bizkaiko Sestao taldearen aurka irabazteko. Nahiz eta taldekide lesionatuak izan, Cristian Davila, Igor Zabalo, Juan Mari Vañes eta Unai Labaka, garaipena lortzeko lana harrobiko gazteek egin behar izan zuten: Joseba, Jon, Iñigo, Aitzol eta Txipik.

Bestalde, ordezkoren aulkian zeuden Victor Silva, Aritz Otaegi, Ander Esnaola Txipi eta Mikel Sanzek ere jokatu zuten igandeko partiduan.

Partida hasieran, Sestao taldea erabat galduta ibili zen eta 9. eta 17. minutuetan, Txipi jubenilak, Ibarren aldeko bi golak sartu zituen eta atsedenaldira, ibartarrak zapore onarekin joan ziren.

Partidaren bigarren zatian, Sestao taldea animatuago hasi bazen ere, denbora gutxirako izan zen. 30. minutuan, Iñigo Arrospide gazteak, hirugarren gola sartu baitzuen, markagailua 3-0 jarritz. Eta hiru minutu beranduago ibartarren markagailura Victor Silvak sartu zuen laugarren gola iritsi zen.

Gainera, Sestao taldeko jokalariek bat gutxiagorekin amaitu behar izan zituen partidako azken minutuak. Hala ere, aurkariak gol bat sartzea lortu zuten eta Victor Inza izan zen golegilea eta defentsak egin zuten huts baten ondorioz izan zen.

Azkenean partida 4 eta 1eko emaitzarekin bukatu zen.

# Gaur XIX. Goñiren Omenezko Memorialeko partidak

**ERREDAKZIOA**

Gaur XIX. Goñiren Omenezko Memorialeko finaleko partidak izango dira. Zumarragako Beloki pilotalekuan jokatuko dira eta 18:30ean hasiko da.

Lehen partidari, Beloki pilota eskolak diren Vega eta Sanchez bikotea, Hernandez eta Mendizabalena aurka ariko dira. Bigarren partidari lau t'erdian izango da eta Aurtene-txe eta Ezkurdia pilotariak ariko dira nor baino nor. Azken partidari berriz senior mailako izango da eta binakalehiatuko dira. Alde batetik, Baez eta Telletxea eta bestetik, Renobales eta Lopez.

# Bihar 16:00etatik aurrera lau partidari jokatuko dira Galarretan

**ERREDAKZIOA**

Hernaniko Galarreta pilotalekuan, erremonteko lau partidari jokatuko dira bihar 16:00etan hasita. Lehen partidari 35 tantora izango da eta Zulaika eta Urko bikotea, Etxabe II.a eta Aizpurua II.aren aurka izango da. Jarraian, Ezkurra eta Lizaso, Zeberio II.a eta San Miguelen aurka ariko dira eta kasu honetan 40 tantora izango da.

Hirugarren partidari ere 40 tantora izango da eta Juaristi eta Urrutia I, Urrutia eta Etxeberria III.aren aurka ariko dira. Jaialdiari amaiera emateko, azken partidari Urtasun eta Ionek osatutako bikotea, Matxin III.a eta Agirrezabalaren aurka izango da. Partidu hau, 30 tantora izango da.

# Soraluze Torneoko txapela jantzi du Unai Onsalok Bergaran

**ERREDAKZIOA**

Aurre Saiazeko pilotariak azken aldiari emaitza oso onak ari dira lortzen eta horietako bat Unai Onsalok aresorarrak lortu duen txapela izan da. Soraluzeko Torneon parte hartu du eta Bergaran jokatu zuen finalean, 22 eta 18 irabazi zion Yol-di pilotariari. Finala, oso parekatua izan zen eta asko borrokatu behar izan zuen txapela jantzeko.

# Tolosakoek ezin izan zuten Berioaren atean golik sartu

**Futbola** » Etxean 0 eta 3 galdu zuen Tolosak donostiarren aurka. Sailkapenean 4. postuan jarraitzen dute.

**ERREDAKZIOA**

Erregionalen ohorezko mailan, Tolosako taldeak, Berio taldearen aurka jokatu zuen partidari. Azken partidari bezala, oraingoan ere eta etxean jokatu arren, tolosarrek hiru puntuak ihes egiten utzi zituzten.

Partidari hasi bezain azkar, zazpigarren minutuan Berio Lareta jokalariek, Tolosarren atean sartu zuen baloia lehen gola eskuratu zuten.

Donostiarrek markagailuan aurrera hartzea lortu zuten eta hortik aurrera, partidari guztian zehar Tolosako jokalariek ez zuten asmatu izan zituzten aukerak aprobetxatu zuten.

Aurkariaren bigarren gola 70. minutuan izan zen eta Garmendia izan zen goleatzailea eta hirugarren gola ere, kontra erasoan sartu zuten 89. minutuan eta kasu honetan, Monreal izan zen golegilea.

Hurrengo partidari, Aloña Mendi taldearen aurka jokatu beharko dute Tolosako futbolariak.

**Sailkapenean, laugarren**

Erregional Ohorezko mailako sailkapenean berriz, 4. postuan jarraitzen dute tolosarrek 45 punturekin. Lehen postuan 57 punturekin Zarautz talde dago eta hauen puntu berdinekin, bigarren postuari Pasajes taldeak du. 3. postuan eta 54 punturekin, Ondarroako Aurrera talde dago. Bosgarren postuan eta tolosarrendan 2 puntuari Idiazabal talde dago.





Kerrek eta Ainarak Zarautzen ateratako argazki honekin irabazi zuten X. HITZA Argazki Lehiaketa. HITZA

Aste Santuen oporraldia ere iritsi da eta urtero bezala TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Argazki Lehiaketa antolatu du. Hamaikagarrena izango da eta hiru sari izango dira. Maiatzaren 9an argitaratuko ditugu irabazleak.

## Oporraldiko argazkiak



Naiara Olaetxea tolosarrak irabazi zuen bigarren saria udara ondotik egindako lehiaketan. HITZA

### ERREDAKZIOA

**I**ritsi da Aste Santuetako oporraldia eta baita HITZAREN Argazki Lehiaketa ere. XI. edizio honetan ere hiru sari banatuko ditugu azken zortzi finalisten artean. Azken zortzi argazkiak maiatzaren 2an argitaratuko ditugu eta orduan harpidedunen txanda izango da. Maiatzaren 4tik 7ra gutukoenak hautatzeko aukera izango baitute. Hiru sariak hauek izango dira: lehenengoak bi lagunentzat bi gauko egonaldia irabaziko du Busturiako Iturbe landetxean, bigarrenok bi pertsonentzako bi gauko egonaldia Bermeoko Artiketxe landetxean, eta hirugarrenok bi pertsonentzako bi gauko egonaldia irabaziko du Busturiako Iturbe landetxean.

nak, aldiz, Berastegiko Larte gaztaz gileen bi gazta eder eramango ditu etxera.

### Parte hartu nahi al duzu?

Argazkiak bidaltzeko posta elektronikoz ([tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)), posta arrunta erabiliz (Araba Etorbidea 5, atzea. Tolosa, 20.400 helbidera bidali eta zehaztu Argazki Lehiaketarako dela) edota HITZAREN egoitzetara (lehen aipatutakoa edo Leitzakoa) ekarriz egin ahalko dute parte-hartzaileek.

Jasotako argazkiak egunkarian argitaratuz joango dira apirilaren 7tik aurrera. Hauetatik batzuk publikatzeko denborarik ez balu emango ere, horrek ez du esan nahi lehiaketan sartzen ez direnik. Guztiak interneten izango dira ikusgai [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info) webgunean eta epe barruan jasotako guztiak izango dute lehiaketa irabazteko aukera.

### Lehiaketaren nondik norakoak

Batzuk bi astez izaten dute jai Aste Santuan baina apirilaren 6tik aurrera has zaitezke argazkiak bidaltzen. Egun horretatik aurrera, berriz, jasotzen diren argazkiak argitaratzeari ekingo dio HITZAK. Hala, apirilaren 28ra arte jasotzen diren argazkiak, hau barne, onartuko dira lehiaketarentzat. Aste-buru horretan bertan, maiatzaren 2an, 8 argazki aukeratuak argitaratuko dira.

### Hainbat baldintza

Hortik aurrera, lana harpidedunena izango da, haien esku egongo baita guztietan irudi ederrena zein den aukeratzea. Aste horretan zehar, maiatzaren 7a bitarte, harpidedunen bozkak jasoko dira, emaillez edo telefonoz.

Ezinbestekoa izango da harpidedun zenbakia esatea bozka ematerako garaian. Bozka emailleek ere HITZAREN materialaren zozketan sartuko dira.

Esan bezala, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN irakurle guztiak dute aukera lehiaketan parte hartzeko, ez dute zertan harpidedun izan. Hori bai, argazkiak aurtengo Aste Santuetan atera beharrekoa izan beharko du.

### » HAINBAT DATU

#### Epeak

- Argazkiak apirilaren 6tik aurrera bidali daitezke.
- Apirilaren 28a izango da argazkiak bidaltzeko azken eguna (azken hau barne).
- Maiatzaren 2an TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN epaimahaiak aukeratuako zortzi argazki finalistak argitaratuko dira.
- Maiatzaren 4tik 7ra bozkatzeko aukera izango da. Gogoratu HITZAREN harpidedunek bakarrik bozka dezaketela.
- Maiatzaren 9an irakurleek aukeratuako argazki irabazleak argitaratuko dira.
- Bozkatzeko bi modu daude: telefonoz, 943-65 56 95, edo mailez, [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info). Harpidedun kodea zehaztu beharko da, bestela, bozka ez du baliorik izango.

#### Sariak

- Irabazleak bi pertsonentzako bi gauko egonaldia irabaziko du Busturiako Iturbe landetxean.
- Bigarren sailkatuak Bermeoko Artiketxe landetxean bi pertsonentzako bi gauko egonaldia irabazi ditu.
- Hirugarrenak Berastegiko Larte gaztaz gileen bi gazta eder eskuratuko ditu.
- Era berean, parte-hartzaile eta boto emaile guztien artean HITZAKO produktuak zozketatuko ditugu.

### Parte hartzeko kontuan hartu beharreko baldintzak

- Aurkeztutako argazkiek Aste Santuetako oporraldikoak behar dute izan.
- Paperean, diapositiban eta formatu digitalean onartzen dira.
- Bidaltzeko aukerak: posta elektronikoz ([tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)) edota posta arruntez egin daiteke (Araba etorbidea 5, behea. 20.400 Tolosa edota Herriko plaza 1, Leitza).
- Bidaltzen dituzuen argazki digitalek, gutxienez, ezauzgarri hauek izan behar dituzte: 20 zentimetroko zabalera eta 300eko bereizmena.
- Jarri behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbaki bat. Horrez gain, argazkia non eta noiz egin den, eta zer ikusten den adierazi beharko da.
- Jasotako argazkiak artxiiboan gordeko ditugu, eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK behar dituean argitaratu ahal izango dituelarik.
- Jasotzen diren argazki guztiak sartuko dira lehiaketan, baina HITZAK jasotako lehen 50 argazkiak argitaratuko ditu.
- Bidaltzen dituzuen argazki guztiak iristen joan ahala TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunean izango dira ikusgai.
- Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra bidali dezake.




Villabonako Maria Dolores Arrieta izan zen hirugarren sariduna. HITZA

Pako Zufiaur Leitzako basozaina da ofizioz. Afizioz berriz, beste hainbat gauzen artean, argazkilaria. Bere lanak une honetan Leitzako Peritza tabernan daude ikusgai. Historia honetaz gozatzeko, bi trago azkar baino hobe bat luzea.

# POLITA DA NAHI DENA ULERTZEA

## ASIER IMAZ

Migrazioak Pako Zufiaur Araiatik (Araba) Leitzara ekarri zuen. «Migrazio baten historia inoiz amaitzen ez denez», eszedentziak Andaluziako Tarifara eraman du: «Orma bat eskalatzen ari gara. Gaur haizerik ez dago. Atzean Afrika daukat eta buruaren gainean 10 putre». Argazki kamera ez du aparte, baina saien inguruko irudiak «nahiko 'errazak' dira, pazientzia kontua. Ugaztunak zailagoak dira: azeriak, basakatuak... hori barnean daramadan arantzza da. Denbora asko behar da».




Ofizioa basozaina. Afizioetako bat argazkigintza. Bestea, «nahi gabex» aurkitutarikoa bat, «horrela suertatu zelako». Pako Zufiaur bere etxea egiten ari zela, gauza batez ohartu zen: «material asko soberan, alferrik galtzen edo bota beharrean» aurkitzen zela. Orduan, egoerari buelta eman eta argazkientzako euskarrik inguraturik zegoela jabetu zen: «Berrerabilpena».

Leitzako Peritza tabernako argazki guztiak adibidez euskarriekin aurkitzen dira. «Nire etxeko gela baten tarima zaharrak landu nituen horretarako. Garrantzitsuen argazkia da baina nola erakutsi ere landu nahi duen, berrerabilpena bultzatuz».



15 urte igaro ditu Pako Zufiaurrek Leitzako basozain postuan. Berririo itzuliko da, benetan gustatzen zaion lana baita, «baina oso nekatuta nengoen».

Hegaldia: «Han hasten zara, gero bestera zoaz, eta halako batean, sasoi pasatzen denean, jatorrizko tokira bueltatzen zara. Ez dago hasiera bat, ez dago bukaera bat, hau migrazio baten historia da. Azken finean, nire migrazioa da. Hegaztien migrazioa nik nahi dudana kontatzeko baliatzen dut. Erabat subjektiboa da. Gero argazkiak ikustean, bakoitzak ulertuko du nahi duena, eskubide osoa dauka horretarako. Batzuk gauza bat ulertzen dute, besteek beste bat. Gero hizketan oso gauza kuriosoak entzuten dira. Polita izaten da».



Araiako argazkilaria lehengo ere erakusketak jarri izan ditu han eta hemen, Gasteizko Unibertsitatean adibidez. Argazkiak atera, aukeratuak papera pasa eta lehen erakusketa, etxean bertan.

Hala eta guztiz ere, argi dauka: «Ezer baino gehiago, basozaina naiz. Hori bai, txorizalea, migrazioak ikustea gustatzen zait, adibidez orain Tarifan». Eszedentziak oraingoz «ez dauka eperik. 15 urteren ondoren nekatuta nengoen, baina garbi daukat lanera itzuliko naizela, gustatzen zaidana delako. Haize nahikoa hartzen dudanean, orduan amaituko da eszedentzia». Zalantzarik gabe, Tarifan ez da leku txarra helburu horretarako.

Gaur han, bihar hemen. Migrazioa hasierarik eta amaierarik gabeko historia da. Subjektiboa. Ugaztunak zailagoak dira.



Pako Zufiaurren argazkiak Leitzako Peritzan, Araiako Bene tabernan eta Tarifako bi tabernetan aurkitzen dira une honetan. «Naturaren inguruko argazkiak ateratzen ditut, beti mugitu izan naiz maila horretan. Badut kezka txiki bat: etetik gertu ditugun gauza ederrak erakustea. Erakusketekin zabaldu nahi dudan mezuetako bat hori da. Normalean kontuan hartzen ez ditugun gauzak erakustea, etetik gertu ditugunak: ikusten jakitea gertuko hori».



Diapositibekin hasi zen argazkilaritzan Zufiaur. «Dirutza bat gastatuta» kamara bat erosi zuen duela 15 urte, «kristoren argazki txarrak ateratzeko». Behin gastua eginga

ordea, lagun batekin hitz eginez, hau probatuz eta hori ukituz, ikasten hasi zen.

Ibilbide horretan, berrikuntzak iritsi ziren: «Gaur egun digitaletan oso merkea da probak egitea. Pazientzia piska batekin nahi dituzun emaitzak lortzea iristen zara, eta probetan dirua galdu gabe. Labortegia ordenagailua bera da eta hori izugarriko abantaila da».

«Zuk nahi duzun argazkia ateratzea da kontua, ez makinak nahi duena». Hori lortuz gero, logika hutsez, argazkiek norberak barnean duen zerbait kontatzeko gaitasuna hartzen dute.

«Erakusketetan argazkiek zentzu bat dute beraien artean, jendeak ikusten ez baldin badu ere hari bat jarri beharra daukazu. Nire kasuan oso erraza da, migrazio baten historia da. Hitzik gabe azaltzen duzun historia bat, nire historia», alegia.







Lehenengo bi enborrak ondo ebaki zituen Joxemari Mendizabalek, baina hirugarrengoa hasi ziren ezinak eta ezin izan zion ondoezari buelta eman. RAUL BOGAJO-ARGAZKI PRESS

# ADIOA MENDIZABALI

**Aduna-Leitza** » Jende ugari eman zion atzo azken agurra Joxemari Mendizabal aizkolari adunarrari Leitzako parrokian.

## IMANOL GARCIA

Azken agurra eman zioten atzo Joxemari Mendizabali Leitzan. Jende ugari bildu zen eta herriko eliza txiki gelditu zen bere hileta elizkizunean. Gorputza parrokiaren aurrrera iritsitakoan, agurra dantzatu zioten arkupean, eta hainbat aizkolari aizkorak altxatuta zituzte la omendu zuten. Ondoren elizaren barruan sartu zuten hiletari hasiera emateko. Herri kiroleko hainbat jende izan zen bertan, gertatutako ezbeharrak oraindik barneratu ezinik. Sebastian Lizaso eta Andoni Egañak bertsoak abestu zituzkioten. Hileta bukatuta, aizko-

lariak berriro omendu zuten Mendizabal elizaren arkupean.

Tolosan herenegun hil zen Mendizabal, dirudienez bihotzekoak emanda. Olasagastirekin zuten aizkora apustua zezen-plazan eta bertan behera utzi zuten ondoezik sentitzen zelako. Tolosan, etxera zihoala, semaforo batean geldituta zeudela, gaizki sentitu zen, autotik atera eta lurrera erori zen. Larrialdi zerbitzuek artatu zuten, baina ezin izan zuten sustatutu.

Adunan jaiotako aizkolariak 63 urte zituen. Orain urtebete jubilatut ondoren, gogoz ekin zion aizko-



Olasagasti, apustuaren une batean Tolosako zezen-plazan. SARA GOMEZ

pero horrelakorik gertatuko zenik. Apustua hasi aurretik «normal» ikusten zuten bere laguntzaileek eta lana ondo hasi zuela gogoratzen du Aierbek: «Lehendabiziko bi enborrak ondo ebaki zituen, etxean baino agudoago. Hirugarrenean etorri ziren ezinak. Hortik aurrera ikusten genuen ez zuela errekuuperatzen, ez zuten errekuuperatzen. Baina plazara normal etorri zen».

## «Sustoa pasa ezinik»

Olasagasti herenegungo «sustoa pasa ezinik» zegoen atzo. «Ikusi nuen ez zihoala ondo, zorabioren bat etorri zitzaiola, baina ez nuen pentsatzen horrelakorik gertatuko zenik».

Bazkaltzen ari zela jaso zuten aizkolari igeldoarrak ezbeharraren berri. Zezen-plazatik elkarrekin atera ziren. «Ez zela ondo bilatzen zioen, baina etxera aldera egin behar zuela buelta esan zuten. Gero telefonora deitu zidaten eta ez nekiela zer egin gelditu nintzen».

Olasagastik gaineratu duenez, gertaerak «norberari pentsatua eta errespetua eta dena» ematen dio. «Beste kirol batzuetan ere horrelakorik gertatu da. Gure artean horrelakorik gertatzea ere. Gizona hala ikusi, umore horrekin, abildade horiekin, probak eginda etxean, gero horrela gertatzea eta memento batetik bestera horrela ikustea. Niretzako ikaragarria da».

## DISEINATZAILEAK (LP2010-DIS erreferentzia)

**BERRIA** egunkariak, Diseinu eta Publizitate Sailetan ordezkapenak egiteko lan poltsa osatu nahi du.

### Eskatzen da:

- Diseinu grafikoko ikasketak izatea.
- Diseinu grafikoa esperientzia izatea.

### Baloratuko da:

- FreeHand, PhotoShop eta QuarkXPress programak erabiltzen jakitea.
- Egutegi eta ordutegi malgutasuna izatea.

Interesatuta bazaude, bidali curriculum vitae [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net) helbide elektronikora, erreferentzia zahaztuz, **apirilaren 15a** baino lehen.

raren munduari eta Olasagastiren aurkako apustua zen horren erakusgarri. Lau kanako enbor zutik moztu behar zituzten, esfortzu handia eskatzen zuten apustua.

Mendizabalen laguntzaile lanean aritu zen Joxe Aierbek gogora-

tzen duenez, gaizki ikusi zuten: «Arnasa hartu nahi eta ezin zuela zioen. Bera ere gogorra zen eta apustuaren ondoren gurekin nahi zuela bazkaltzera joan eta...». Entrenamenduetan «poliki ikusi gertatzen» dio Aierbek eta ez zuten es-

## IRURA : aukera ona

3 logelako etxea.

Sala, sukaldea, jangela, komuna eta trasteroa,

4 balkoi, haltzariz hornituta

39.000.000 pta • Tel.: 615 702 913

# Heriotza plazan topatu duen aizkolari handia

**Aduna-Leitza** » Harri-jasotzaile bezala hasi zen, baina lesio baten ondorioz aizkolari egin eta enbor handietan nagusitu zen.

I. GARCIA

Aizkoraren munduan arrastohan dia utzi du Joxemari Mendizabalek. Aduna jaio zen 1947an eta Leitza hainbat urtez bizi zen. Azken hamar urtetan Urdiain (Nafarroa) hartu zuen bizileku. Herri kirolen munduan harri-jasotzaile bezala hasi zen, baina ez behar baten ondorioz aizkorekin jarraitu zuen eta pixkanaka sona hartzen joan zen. Orain 20 urte inguru utzi zion aizkora aritzeari eta jubilatzeke garaia iristen ari zitzaiola, berritro heldu zion arrak. Erakustaldiak egiten hasi zen Mendizabal, behin 60 urteak beteta zituela, eta horien lekuko dira Adunan jokatutako Gorostidi Harria Txapelketan egindakoak.

Gabriel Saralegi aizkolari ohi leitzarrak ondo ezagutu zuen Mendizabal. Bere eta Leitza beste aizkolari batzuen eskutik sartu zen aizkoraren munduan. Harri-jasotzen ari zela harria gainera erori zitzaion eta lesionatu egin zen Mendizabal. Hortik aurrera ezin izan zuen harri handirik altxatu, baina lehiarako gogoa ez zitzaion joan.

Ezkonduta eta gero Mendizabalek bere emaztearekin taberna-jaketxe bat hartu zuen Leitza eta bertako giroa bizitzen hasi zen. «Orduan, Leitza aizkora giroa zen nagusi», gogoratzen du Saralegik. «Gu hartan ibiltzen ginen eta erakustaldietan berarekin ibiltzen ginen, bera harri-jasotzen eta gu aizkora. Mina hartu zuen hanka hartatik harri handiak altxatzeko ezina gelditu zitzaion eta aizkora hasi zen».

«Pertsona eskuzabala» zela dio Saralegik. Aizkoraren munduari Mendizabalek beste bizi bat eman



Mendizabal 1981ean Tolosako zezen plazan egindako apustuan. HITZA

ziola dio. «Honek edozein desafiatzaren zuen. Hasieran Aierberri jokatutako apustua eta hasiberria izanaren lau kanako enborrak mozttera jokatutako zion, eta Mendizabalek irabazi egin zion, gainera. Gero Arriatarrarekin, Mindegarekin, Olasagastirekin apustuak jokatu zituen... Beste bizitasun bat eman zion aizkora».

Saralegitarren baserrian hasi zen lehen pausoak ematen. Gero beste batzuekin ere ibiltzen zen: Cristobal Lazkano edo Miguel Iturrarte, esaterako. «Lagun asko zituena eta berak taberna zuenez,

giro berezia izaten zen bertan, herri kirolari buruz eta batez ere aizkoraren inguruan», gogoratzen du Saralegik. «Ikaragarri ongi prestatzen zen eta lagunak ere berdin prestatzen zituen. Zurgina zen berez, eta herrimintak jartzeko garaian artista bat zen».

Enbor handitan ikusi zuen Mendizabalek aurrera egiteko aukera gehien. «Horretan espezialista ikaragarria egin zen», dio Saralegik. «Horrek ez du esan nahienbor txikitzen lan onik egin ez zuenik. Behin Tolosan egindako apustu batean Inazio Arriaren aurka 20

kanaerdiko 32 minututan ebaki zituena». Txapel batzuk ere lortu zituen, baina ez zuen apustuetan bezain emaitza onik lortu.

## Herri kirolen munduan ezusteko handia

Saralegi bera Tolosako apustuan izan zen. «Ez genuen espero ezta gutxiagorik ere horrela bukatuko zenik», dio leitzarrak. «Bera ongi ezagutzen genuenak, konfiantza osoa genuen ongi prestatuta joango zela, beti hala joaten zelako. Analiisiak egiten, azterketak egiten... bere burua asko zaintzen zuten gizona zen».

Oso gizon gogorra zela dio Saralegik. «Hirugarren enborrean ikusitako gauzak gaizki zihoazela, baina bera oso gizon gogorra zen, sekula etsitzen ez zuen horietakoa, bere buruari gogor egiten ziona eta nolabait hirugarren enbor hori bukatu zuen. Olasagastiri ere kosta zitzaion lau enborrak bukatzea, lan handia zelako». Olasagasti zoriontzera atera zenean, «planta txarra ikusten zitzaion, baina artean inork ez zuen espero azkenean gertatu den hori».

Anjel Arrospide aizkolari leaburra ere Tolosako zezen-plazan izan zen herenegun. «Kolpe handia izan da», esan du. «Pertsona bezala, munduan dagoen hobereena zen, zuena emateko beti prestatzen zen horietakoa».

Bere ustez ez zen unerik egokiena lan hori egiteko: «Urte askotan geldirik nola egon den eta pisu handia hartuta...». Leaburuarrentzat, hala ere, aizkolari bikaina izan zen. «Bera hasi zen bezala hasita, hori hasi zen garaian hasita ikusita, nire ustez aizkolari handia izan da. Enbor handietan onena izan zen», argitu du. Mendizabalek Euskal Herriko Txapelketa irabaztea faltan bota zuela gogoratu du leaburarrak. «Baina meritu guztiakin aizkolari handia izan da», gaineratu du. «Inori ez zitzaion burutik pasatu horrelako gauzarik gerta-

tuko zenik. Ez da lehenengo aldia norbait erretiratu dena plazatik ondoezik zegoelako».

Aizkolari beteranoei horrek zer baitetan eragingo dien galdetuta, Arrospidek hauxe erantzun du: «Normal ari garela ez, baina pixka bat estutzen hasten bagara, agian eragingo du. Estu-estu jartzen garen garaian eragin dezake». Egungo beteranoei urtetan aizkora jarraitu dute eta Arrospidek uste du «hori gure alde izango dela».

Iñaki Gorostidi harri-jasotzaile ohi adunarrak ere hartu-eman izan du aspaldianik Mendizabalekin. «Ikaragarri izan da», dio Gorostidik ezbeharrari buruz. «Apustuan izan ginen eta bazkalatzen bukatzen ari ginelako berri tristea jaso genuen». Mendizabal harri-jasotzen ibiltzen zenean, berarekin aritzen zen Gorostidi. «Nirekin zegoela erakustaldi batean hartu zuen harriarekin mina. Ezbeharrak kolpe handia izan da, eragin handia izan du. Ikusten zen aizkorekin lan handiak egiten zituela oraindik. Marka pertsonalak egin nahi zituen adin horretan eta ilusioarekin zegoen».

Gorostidi Harria txapelketaren baitan aurtengoa erakustaldia egitekotan zen ere, Olasagasti berarekin. Apirilaren 25ean izango da Txapelketa eta bertan omenaldia jasoko badu ere, aurrerago bere omenez beste zer bait egitea pentsatzen ari dira.

Adunako Udalak, bere aldetik, Mendizabalen familiaren eta inguruko doluminarekin eta saminarekin bat egin du, bai Udala- ren eta bai herritarren izenean. «Bera izan da herrian jaio izan den kirolaririk ezagunetakoa eta garrantzitsuen. Herrian egin izan ditugun ekitaldietan eta horrela eskatu izan diogunean, parte hartu izan du beti», azaldu du Udalak. «Gainera, nahiz eta aspaldian hementen ez bizi, herriarekin eta herritarrekin harremana izan du. Bere jarraera ona ere zoriontzekoa da».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**FUNERARIA VASCONGADA**  
 EHORZKETAK  
 SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
 ZURE BETIKO EHOZTETXEA  
 www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
 ZERBITZU IRAUNKORRA  
 902 402 900



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta/Leizaola:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra/Leizaola:** 687 410 118. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizalaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Irakurle taldea sortzeko bilkura informatiboa egingo du Galtzaundi Euskara Taldeak Kultur Etxean 20:00etan.  
■ **Tolosa.** Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak, hileroko azken asteartero bezala, bilera irekia egingo du Korpus Kristi parrokiko lokalatan 20:00etan. Alkohola eta bere ondorioak izango dituzte mintzagai. Bilerara gonbidatzen dituzte alkoholaren ondorioak pairatzen dituztenak eta euren senideak.

### Bideo emanaldia

■ **Alegia.** Kultur Etxean 18:00etan *To shoot an elephant* dokumentala.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 446 10.  
■ **Leitza.** Campos M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## A Agurrak

agurrak urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

# 1.136 lagun Aizkardiko ibilaldian

**Villabona** » 897 gizonetako izan ziren eta 239 emakumezkoak; ibilaldi luzea aukeratu zuten gehienek.

### ERREDAKZIOA

Guztira 1.136 pertsonak hartu zuten parte hereneguneko Villabona-Amasa 42. Ibilaldi Neuratuan. Antolatzaileek mila partaide espero zituzten, eta emaitzak ikusita pozik agertu dira. Giro ederra izan zuten gainera, eta beraz, «jendearen partaidetza eta laguntzaile guztien lana» eskertu nahi izan dute.

Parte hartu zutenetatik 1.121ek bukatu zuten aukeratutako ibilbidea, bai motza eta baita luzea ere, eta horietatik 897 gizonetakoak izan ziren eta 239 emakumezkoak.

### Jende gehiago ibilaldi luzean

Bi ibilaldi egin ahal ziren; 42 kilometrotako luzea eta 24 kilometrotako motza. Lehenengoan 2.250 metroko desnibelari egin behar

### Partaidetza

■ **Partaide kopurua.** 1.136 lagun; 897 gizonetako eta 239 emakumezko.  
■ **Ibilaldi luzeko partaideak.** 677 lagun; 597 gizonetako eta 80 emakumezko.  
■ **Ibilaldi motzeko partaideak.** 459 lagun; 300 gizonetako eta 159 emakumezko.  
■ **Partaide federatuak.** Guztira 698 lagun; 582 gizonetako eta 116 emakumezko. Ibilaldi luzean 517 atera ziren eta motzean, berriz, 181.



Eguraldi bikaina egin zuen, eta horrek ere jendea parte hartzerantz animatu zuela uste dute antolatzaileek. HITZA

zioten aurre eta bigarren goan, aldiuz, 1.150 metrokoari.

Hala eta guztiz ere, luzean hartu zuten parte jende gehianak. Honetan 677 lagunek hartu zuten parte, horietako 597 gizonetakoak izan zirelarik eta 80 emakumezkoak. Motzean, aldiz, 459 pertsona izan ziren; 300 gizonetako eta 159 emakumezkoak.

### Denborak

■ **Gutxieneko denborak.** Ibilaldi luzean gizonetakoak 4 ordu eta 54 minutu eta emakumezkoetan 5 ordu eta 4 minutu. Ibilaldi motzean gizonetakoetan 2 ordu eta 35 minutu eta emakumezkoetan 3 ordu eta 14 minutu.  
■ **Gehieneko denborak.** Ibilaldi luzean gizonetakoak 10 ordu eta 42 minutu eta emakumezkoetan 10 ordu eta 35 minutu. Ibilaldi motzean gizonetakoetan 6 ordu eta 51 minutu eta emakumezkoetan 6 ordu eta 50 minutu.



Guztira 1.136 pertsona bildu ziren herenegun. HITZA

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Asteunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko hitza.info](http://www.tolosaldeko hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	